

IDENTIFIKATUTAKO KOLEKTIBOA.

ORDAINSARIAK ZEHAZTEKO UNEAN ERABILTZEN DIREN IRIZPIDEEN AZALPENA, EGUNGO ETA ETORKIZUNEKO ARRISKUAK KONTUAN HARTZEARI DAGOKIONEZ.

Zuhurtzia esparruak finantza erakunde eta taldeek bete beharreko ordainsari politikek bete beharreko oinarri eta printzipioak ezartzen ditu. Printzipio horiek honako aspektuekin erlazionatuta daude: arriskuaren eta ordainsariaren arteko lotura, murrizketa orokorrak, eta ordainsari aldagarriaren ordainketa eta likidazioari aplikatzen zaizkion arauak, finantza-sektoreko praktika egoki eta desegokien arteko desberdintasuna markatzen duten jokabideen eragile moduan.

Arriskuarekin erlazionatzeko prozesuak bi aspektu ditu: emaitza eta arriskuen ebaluazioa, eta ebaluazio horren arabera doikuntza. Era berean, funtsezko bi momentu daude, ordainsari aldakorren kalkulua edota likidazioaren eraginaren arabera (zuhurtziaren zentzu zabalean). Batetik, arriskuaren exante ebaluazio bat egingo da beti, eta horrek eragina izango du ordainketa aldagarria zehazteko orduan (kontzesioaren unea); beste alde batetik, proportzionaltasun printzipioaren arabera, aplikatzen zaien kolektiboko pertsonen arriskuaren expost ebaluazioa ere egingo zaie, urte anitzeko esparruaren barruan, eta horrek hasieran emandako ordainketa aldagarriaren azken likidazio eta kontsolidazioan eragingo du.

Horrela izanik, exante emaitzak erakundearen epe luzerako kaudimen, iraunkortasun eta kapitalaren oinarri solido baten mantentzean oinarritzen dira. Primetarako fondoak kalkulatzeko abiapuntu egokia da (aldagarria banatzeko aukera edo ez), eta, hala badagokio, aurreikusitako kopuru osoa eman ahal izango da, planteatutako helburuak betetzen badira, bai Erakunde mailan, unitate mailan edota identifikatutako kolektiboko kideari dagokionez ere. Edo, bestela, kopuru horien zenbateko osoa edo zati bat doitu beharko da.

Expost emaitzen ebaluazioa, bestalde, exante ebaluazioaren osagarria da. Urte anitzeko aldi batean, ordainsari aldagarriaren kontzesioaren unean egindako emaitza eta arriskuen balorazioa kokatzen du, atzera begirako ikuspegiarekin. Beraz, hasiera batean kontuan izan gabeko edo identifikatutako arriskuak expost baloratzeko aukera ematen du. Beraz, expost ebaluazioak ez digu zehazten ordainsari aldagarria, baina, nolabait, aurretik emandako zenbatekoen likidazioa edo azken kontsolidazioa baldintzatu dezake. Osagarria denez, arriskuaren arabera doitu beharko da exante doikuntza ez bada izan zehatza edo osoa, edo kapital-oinarriaren galerak edo aldaketa nabarmenak egon badira. Horrela izanik, expost ebaluazioak Erakundearen, negozio-lineen edo langileen jardueren inguruko benetako arrisku egoeretan erantzun beharko du.

Horri dagokionez, araudiak honakoa adierazten du: *“Arriskuaren eta emaitzen neurketaren ikuspegia erakundearen urte anitzeko ziklo ekonomikoaren esparru batean kokatuko da”*. Kutxabanken urteroko ordainsari aldagarriaren planen kasuan, emaitzen urte anitzeko ebaluazioa arriskuaren arabera expost ebaluazioaren bidez egin ahal izango da. Modu osagarrian, urte anitzeko ordainsari planak egin ahal izango dira, Erakundearen arriskua kudeatzeko estrategiaren eta ordainsari politikaren arabera, eta une bakoitzean aplikatu beharreko araudiaren arabera.

Azkenik, behin emaitzen, arriskuaren eta kaudimenaren ebaluazioa eginda, horien arabera ordainsari aldagarriaren doikuntza egiteko, arriskuari dagozkion mekanismo zehatzak aplikatu behar dira:

- Arriskuari dagokion exante doikuntza mekanismoa. “Aurretiko malus” deritzonaren bidez, araudiaren arabera, ordainsari aldagarria murriztu daiteke lanaren ebaluazioaren unean, Erakundearen emaitzetan, kapital-ratioetan edo bestelako parametroetan emaitza negatiboa dagoela antzemango balitz, hala nola aurrekontuan sartutako helburuak lortzeko mailan. Edonola ere, ordainsari aldagarriaren murrizketa gertatuko da Erakundearen dibidendu banaketarako politikan mugaketak egiteko eskatzeko eskumena baldin badago.
- Arriskuari dagozkion expost doikuntza mekanismoak. Identifikatutako kolektiboaren ordainsari aldagarria arriskuarekin bat etortzeko aukera dago; horrela izanik, hasieran emandako zenbatekoak murriztuta, etenda edota ezeztatuta geratuko dira, Erakundearen emaitzetan, kapital-ratioan edota bestelako parametro batzuetan (esaterako, aurrekontuan jasotako helburuen lorpena) joera negatibo bat antzemango balitz, expost, zuhurtzia araudian aurreikusitako ezeztatze edo etete egoeraren bat emango balitz, edo araudi hori berrikusteko ardura duen pertsonak zehazten duenaren arabera. Doikuntza horiek “malus” klausula (edo geroratua edo likidatzeke dauden ordainsari aldagarriko zenbatekoen murrizketarako irizpideak) edo “clawback” klausula batzuen bidez (edo dagoeneko egindako ordainketa aldagarrien zenbatekoak berreskuratzeko irizpideak) burutuko lirarteke.

Mekanismo horien oinarria zuhurtziatzeko araudi esparruak ezarritako eskakizuna da, hau da, estatu bakoitzaren lan eta kontratu bidezko eskubidearen printzipio orokorrei kalterik egin gabe, ordainsari aldagarriaren % 100a ere nabarmen murriztua gera daiteke finantza-emaitza negatibo edo ez onuragarriak baldin badaude.

Aipatutako mekanismoak gorabehera, baliteke beste bide batzuk hartzea ordainsari aldagarriaren balio inplizitua doitzeko, materializazio formula batzuekin lotuta, hala nola akzioen edota likidazioa partzialki bideratzen duten antzeko tresnen balio ekonomikoaren edo merkatu balioaren doikuntza (gutxienez emandako kopuruaren % 50a, araudi-esparruan ezartzen duen moduan, proportzionaltasun printzipioa kontuan hartuz). Berezko izaera dela eta, bere merkatuko balioa Erakundearen balioaren bilakaerarekin lotuta dago, eta horrek barne hartzen du egungo eta etorkizuneko emaitza eta arriskuaren estimazioa. Kutxabank Taldearen eta Kutxabank SAren kasuan (horren sozietate matrize gisa), egitura sozietarioa dela eta (sozietate ez kotizatu moduan), akzioen ordezkotresnak erabiltzen dira, xede berarekin, ordezkotzen dituzten jabetza-interes irabazi edo galerak xurgatzeko gaitasunari dagokionez.

Ordainsari aldagarria emateko emaitzen ebaluazioan barne hartutako arrisku-adierazleak.

Ordainsari aldakorren inguruko planen formulazio gisa, emaitzen exante ebaluazioa egite aldera, kasu bakoitzean eman beharreko ordainsari aldagarria zehazteko, kanpoan geratuko dira negozio eta errentagarritasun adierazleak, arrisku adierazle espezifikoak eta kaudimen adierazleak. Horri dagokionez, 2019an indarrean egondako ordainsari aldakorreko sisteman honakoak sartu ziren:

1.- Egungo arriskuak kontuan hartzea.

Zerbitzu Zentralak.

Identifikatutako kolektiboaren, zuzendaritza taldearen eta, orokorrean, tarteko aginteen urteroko ordainsari aldagarriaren kalkulua egiteko, honako arrisku/kaudimen adierazleak hartu dira kontuan:

1. Berankotasunaren aldaketa
2. Ustiapen gastuak
3. Kapital core ratioa
4. Likidezia gap

Horien guztien artean, eta % 100eko oinarriaren gainean, batez besteko ponderazioak % 25a hartzen du negozio egoeretan, eta % 30a kontrol funtzioetan, azken hori batez besteko ponderazioaren % 10arekin sendotua modu osagarrian, kontrol funtzioaren adierazle espezifikoetan.

Nabarmendu behar da Kreditu Kontrolaren arduradunaren funtzioan, adierazleen ponderazioa % 50ekoa dela (% 100eko oinarriaren gainean).

Adierazleen neurketa urterokoa da, eta guztiek daukate barne epe erdirako ikuspegia, horietako bakoitzaren bilakaera objektibo bihurtzeari dagokionez.

Sare Komertziala.

Ia sistema guztiek daukate gutxienez adierazleren bat arriskuaren arabera egokitua, kasu gehienetan, kreditu-arriskuari dagokiona (kreditu erakundeak). Normalean neurtzen den adierazle estandarra berankotasunaren murrizketa da, unitate mailan edota kudeaketa zorroaren mailan ere. Batez besteko garrantzia % 10ekoa da (%100eko oinarriaren gainean). Bestalde, negozio-adierazleen barruan, beti daude marjinaren aldaerak, eta epe erdirako ikuspegiaren adierazle moduan berankotasunaren bilakaera negatiboaren eraginpean dago.

Aurreko adierazle guztiek pendiente dauden arriskuak neurtzen dituzte, urteko ikuspegiarekin, baina Erakundearen aurreko posizioen bilakaera ere hartzen da kontuan, edota kreditu erakundearen merkatuko erreferentzia, epe erdirako ikuspegiarekin.

Gainera, urte anitzeko ordainsari aldagarriaren inguruko planak jar daitezke martxan.

2.- Egungo arriskuak kontuan hartzea.

Zerbitzu Zentralak.

Identifikatutako kolektiboaren eta tarteko aginteen ordainsari aldagarria partekatzen duten aipatutako adierazle korporatiboetatik, horietako bik etorkizunera begirako arriskuen ikuspegia daukate barne:

1. Kapital core ratioa,

2. Likidezia gap,

Horien ponderazioa, % 100eko oinarriaren gainean, % 5koa da negozio-postuetan, eta % 10koa kontrol funtzioetan.

Bestalde, arrisku horien neurketan protagonismo handiena duten bi unitateak honakoak dira:

a).- Kreditu-arriskuaren unitatea. Intzidentzia bikoitza dauka.

- Batetik, negozio-unitateen arrisku atribuzioak zaindu eta kontrolatzen ditu. Etorkizuneko arriskuen kontrolerako, kreditu arriskuaren zuhurtzia politikak bermatzeko egiturak eta egitura zentralizatuak ezarri behar dira.
- Bestalde, arriskua balorazio sistema sofistikatuen bidez kalibratzeko aukera ematen duten scoring sisteman zuzendu eta ezartzen ditu.

b).- Arriskuaren Kontrol Globalerako Unitatea.

Kutxabank SAREN Administrazio Kontseiluak Kutxabank Talderako onartutako Arrisku Joera Esparruaren arabera,

- Helburu orokor bat ezarri da arrisku-joera mailaren inguruan, eta erreferentzia gisa balio du. Era berean, arlo bakoitzean zehaztapen kualitatibo eta kuantitatiboak ezarri dira.
- Taldearen jarduerak dituen arriskuak identifikatu dira.
- Egungo eta etorkizuneko jarraipenerako monitorizazio sistemak ezarri dira (mehatxuak eta sentikortasuna, kapital-kontsumoaren adierazleak...).
- Kudeaketarako erantzukizun mailak ezarri dira.

Hala ere, ordainsari aldagarrian daukan eragina garatzeke dago oraindik, Arriskuaren Kontrol Globalaren berezko arlotik harago, kasu horretan adierazle espezifikoek Arriskuaren Kontrol Globalaren Planaren partaidetza neurtzen baitute.